

Sarrera

COYOS, Jean-Baptiste
Euskaltzaindiko Jagon sailburua

Euskaltzaindia hizkuntzaren corpusaz arduratzen da; bere helburuetan hizkuntza lantzea eta arautzea badira. Baina, halaber, euskararen estatus sozialaren arreta hartzen du ere (1920ko Euskaltzaindiaren sortarauak), euskararen sustatzea eta erabileraren zabaltzea, besteak beste. Hizkuntzaren kalitatea bermatzearekin eta hitzunen eskubideak zaintzearekin batera, horiek dira Jagon Sailaren eginkizun nagusiak.

Ildo honetan, urtero, Jagon Sailaren Sustapen batzordeak euskararen erabileraren nondik norakoak aztertzeko, Jagon jardunaldiak antolatzen ditu. 2011n Gasteizen izan ziren, euskararen egoera Araban ikertzeko. 2012an, XVII.ak Ipar Euskal Herrian antolatu zituen Euskaltzaindiak, azaroaren 16an, Paue eta Aturriko herrialdeetako Unibertsitatearen Baionako campusean.

Egun hartan, Euskararen Erakunde Publikoaren laguntzarekin, *Euskara-
ren oraina eta geroa Ipar Euskal Herrian* izenburu pean, euskararen sustape-
nean ari diren elkarte eta erakundeekin batean gogoeta egin zuen Euskal-
tzaindiak. Helburua zen euskararen ezagutza eta erabilera indartzeko lanean
ari direnen ahaleginen, asmoen eta beharren azaltzea, lan horren ezaguta-
razteko eta, ahal den neurrian, norat jo behar zuen aurreikusteko. Hots,
bigarren aldikoz, lurralde bateko hizkuntza-errealitatea aztertu zen.

Egitarauari dagokionez, bost zati izan ziren. Goizean V. Inkesta soziolin-
guistikoaren azterketa kualitatiboa proposatu zen, Ipar Euskal Herriko
emaitzak euskararen eremu osoko testuinguruan kokatuz. Ondotik Euskal

Kultur Erakundeak euskararen balorazio kulturala eskaini zuen. Azkenik, hizkuntza politikaren eragile nagusiak biltzen zituen mahai-ingurua izan zen, euskara indarberritzeko hizkuntza politika aipagaiarekin. Arratsaldean, norbanako edo taldeko esperientzia azpimarragarri zenbait azaldu ziren: kantagintzan, bertsolaritza, irratigintza eta administrazioetako langileen euskalduntzean. Bururatzeko, Euskararen irakaskuntzan ari diren elkarte nagusiek irakaskuntza elebidunaren erronkak eztabaidatu zituzten.

Jardunaldietako akta hauetan saioetako testu horiek aurki daitezke: Erramun Baxoken «2011ko inkesta soziolinguistikoaren azterketa Ipar Euskal Herriko ikuspuntutik» txostena, Sébastien Castet Euskal Konfederazioaren idazkariak egin zuen 2011ko inkesta horri buruzko ekarpena, Pantxoa Etxegoin Euskal Kultur Erakundeko zuzendariaren «Euskararen balorazio kulturala» txostena, «Euskararen oraina eta geroa Ipar Euskal Herrian» eta «Irakaskuntza elebidunaren erronka: hiztun osoak egitea» izenak zituzten mahai-inguruetako ekarpenak.

Euskaltzaindiaren izenean esker onak bihoazkie guztiei, jardunaldiak prestatzen lagundu zutenei, mintzaldietan eta eztabaidetan parte hartu zuten denei.

Euskararen egoera Ipar Euskal Herrian ez ona izanik ere, erakutsi dute nola lan egiten zuten, zein ziren alde itxaropentsuak eta besteak, eta, aitzina begira, lan egiteko norabide berri eta eraginkorrak zoin izan zitezkeen.

Bai, *Euskera* barne-agerkariaren ikerketa-zenbaki honetako txostenek frogatzen duten bezala, Ipar Euskal Herrian ere euskarak geroa badauka.